

Milesker

Azaroan eta abenduan, sorkuntza berri baten kari, Baionako Etxepare lizeoan eta Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan egon gara.

Bi ikastetxeek gure sorkuntzak eskatzen dituen saiakerak bertan egitera gonbidatu gaituzte. Ikastetxeo musika edo arte gela, aste oso bat egon gara bakoitzean.

Ikasleekin jan dugu haien kantinan, ikasleen egoitzan entseatu dugu, errepikaz errepika ikasleak etorri dira, bakarrak edo irakasleekin, hezkuntza aholkulariekin

ala hezitzaileekin. Irakasleak ere hurbildu zaizkigu, ulertzeko, partekatzeko, hausnartzeko. Eta elkar harritu dugu.

Jakin behar da saiakerak beti

malestruak direla: ez dakigu nora goazan eta zalantza dugu nagusi. Ezer ez da efikaza, ezta ikusgarria ere, testua ez dugu amaitua, eszenografia eskupean dugunarekin osatzen dugu, argiak lanekoak dira, eta musika bidean da.

Hots, antzerki saiakerak zailak dira, hauskorak, eta gehienetan ez dugu asmatzen. Artisau lana izanik, milimetroz milimetro aitzinatzen gara, jakin gabe zehatz

nora goazan. Noizean behin, argitxo bat ikusten dugu, baina gutxitan. Zuzendari gisa, nire lehen hitzak hauek izaten dira normalean: «ez dakit... baina saia gaitzen».

Ikasleak, irakasleak, hezkuntza aholkulariak eta hezitzaileak begiak eta belarriak zabal-zabalik egon dira, gertakari guztiei adi eta kurios, galderaz gainezka, gomen-dioz eta gogoz beteta. Eta modu bitxian, gure etorrerak ikastetxeo ezberdintasunak leundu ditu (izan urteak, sexua, izaera edo gaitasunak). Haurtzarokoa, nerabezarokoa eta gaztarokoa garai bereziak dira, norbanakoak nor garen eta nor izan nahi dugun adierazteko garaia. Eta ikuspegi horretatik antzerkia bitarteko bat bilakatu da: norbere baitako begirada eta bide batez inguratzen gaituen munduarekiko dugun begiradari buruzko hausnarketa egin ahal izateko tresna. Etorkizuna eta haren tresna iraukorak eraiki behar dira. Jokoa da gure eremua, plazera, horrek indarra ematen digu, eta are gehiago euskaraz eginez. Esperientzia horietan, gure hizkuntzari balio erantsi bat eskaintzen diogu. Euskaraz erraten duguna, euskaraz soilik adierazi dezakegu.

Sormen esparrua berriz asmatzeko aukera irekia da ikastetxeetako hau: idazkera, irudimena, gorputza eta elkarbizitza. Aisialditik urruntzen gara, sormen partekatutik hurbiltzeko eta artearekiko lotura afektiboa gauzatzeko.

Agurtzeak dugun **Zaldi Urdina** ere hau dena izan dela erran dezaket, ausardia zerbait bada ere. Eta oso eskertua sentitzen naiz. 16.000 pertsonak baino gehiagok antzezlanak ikusi dute, eta zoragarria iduritzen zait. 83 emanaldi betekoa ditu abendu bukaeran, eta sinesgaitza zait. Pandemiak gain, euskal komunitateak antzezlanak bere egin du, eta ez daukat hitzik. Familian etortzen ikusi zaituztet, bikotean, lagunartean, zuena zen zauria partekatzeko, eta bide batez mina arintzeko. Eta maitasun handiz tratatuak izan garela ere erran behar dut.

Eskerrrik asko publikoari, kazetariei, kultur eragileei, ikasle eta irakasleei, teknikariei, ekoizleei, banatzaileei, aktoreei,

Eskerrrik asko publikoari, kazetariei, kultur eragileei, ikasle eta irakasleei, teknikariei, ekoizleei, banatzaileei, aktoreei, elkarteei... zuei guztiei, zeren urte bat eta hiru hilabetez bat izan gara. Bat gara, asko izan arren eta denak ezberdin

elkarteei... zuei guztiei, zeren urte bat eta hiru hilabetez bat izan gara. Bat gara, asko izan arren eta denak ezberdin.

Ilusioak merezi du, saiakerak merezi du, emanaldi bakoitzeko borrokak/apustuak merezi du. Nafarroa Beheretik Arabara eta Nafarroako puntatik Gipuzkoako erdigunera, Lapurdin eta Bizkaian, denetan egon gara, eta ozen esan dezaket harrotasun zerbaitekin: bat gara.

Irri partekatua ez da utopia bat; elkarri mintzatzea eta hatsa batera hartzea hitz beretan ez da ameskeria bat, gertakari bertan eskutik heltzea ere ez, zeren denek pairatu dugu zaldiaren odolustea; denok euskaraz erran ahal izan dugu, ahotik belarri-ara, etxeetan gehienetan, eta orain antzokian. Bakoitzaren malkoa guztien minaren adierazlea izan da, eta begi busti guztiak bakoitzaren bizipenen ispilua izan dira.

Ez zaituztet ahaztuko, bakoitzak eskaini duzuen nirekin eramaten dut. Beste hainbat mendi, itsaso eta leku ezezagun zeharkatzeko indarrak bildu ditut, eta garrantziatsuen: posible dela sinesten dut.

Gure historia modu gordina eta fikzionala kontatzea posible da; euskal antzerkitik mundua murriztea eta zazpi kantoietan kurritzea posible da; urte guztietako familia eta kuadrillei mintzatzea posible da; herri bakar batean bizitzea posible da; guztien elkarlana da giltza. Hau dena eta gehiago erakutsi diguzue, eta eskertzen dizuet. Bihotzez, milesker, eta laster arte.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

2020ko abenduaren 11eko 2.020 Alkatetzadekretuaren bidez, erabaki zuten ondorengo dokumentu honi hasierako onespenea ematea eta jendaurrean jarzea:

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 6,1 "San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Birpartzelazio-proiektuaren Aldaketari.

Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen 95, eta 97, artikuluek ezarritakoaren arabera, dokumentua jendaurrean jarrita egongo da hogei eguneko epean, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko.

Iragarki hau argitaratuko da Gipuzkoako aldiakari ofizialean, Diario Vasco, Berria eta Astaría egunkarrietan eta Udaletxeko iragarki taulan. Aurrean aipatu den epea kontatzen hasiko da azkeneko argitaratze-egun eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udaletxeko Hirigintzako bulegoetan (helbidea: Plaza Zaharra 6-B; 4. solairua). Alegazio idatziak eraikin horietan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean (UDATE) aurkeztu behar dira, alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2020ko abenduaren 15ean.
ALKATEA
Olatz Peon Ormazabal

GABONETAKO ZIRKOA

ABENDUAREN 25 ETIK URTARRILAREN 10 ERA ILLUMBE ARENA-DONOSTIA

ARTISTEN JAIALDIA
TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON
GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO
ASIER BURGUETE
PAUTE ETA CAPITANO

Eros itzazu zure sarrerak orain www.ilcircoitaliano.com

2020 | 12 | 26

ONLINE
HTX ROCK
HATOR HATOR NESKA MUTIL ETXERA

nota bairo gehiago

SARRERAK 12€ SALGAI
WWW.HATORTXUROCK.EUS

Edo egin zure ekarpena
BIZUM
664 197 136
KONTU KORRONTEA
ES82 3008 0206 1340 8895 2124

naiz: GARA berria nazi abitza microm